



2024SECG0001
1.bilera: OHIKOA 2024/02/29

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 1/2024
EGUNA: 2024/02/29
HASIERA ORDUA: 17:00
AMAIERA ORDUA: :17:30
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak eta zereginak.

Aztertzen da Tokiko Gobernu Batzarrari buruzko araudia.

Udalbatzak 2023ko uztailaren 12an eginiko osoko bilkuran erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarren bilerak, 15 egunetik behin izango zirela, hilaren lehenengo eta hirugarren asteko ostegunetan, 19:00etan. Aintzat hartuta gaur egun Tokiko Gobernu Batzarrari ez zaiola eskuordetu inolako eskumenik bilerak 15 egunetik behin egitea gehiegizkotzat jotzen da; horregatik, proposatzen da osoko bilkurari Tokiko Gobernu Batzarraren bileren aldizkakotasuna aldatzeko proposamena egitea.

Bestalde, Tokiko Gobernu Batzarren bilerak publikoak ala itxiak izan behar ote diren harira, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 25. artikuluan ezartzen ditu Udalerrriaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko printzipio orokorrak, eta, 1. puntuan jasotzen du antolaketa eta funtzionamendua toki-araubidearen oinarrizko legeriak eraenduko dituela. Aipatzen den toki-araubidearen oinarrizko legeri hori, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean jasotzen da.

Tokiko Gobernu-Batzarraren bilerak publikoak izan behar ote diren inguruan, kontraesana dago aipatutako bi lege horien artean. Izan ere, 2/2016 Legeak, 30. artikuluan 2. puntuan, jasotzen du Tokiko Gobernu-Batzarraren bilkurak publikoak izango direla, salbu eta kontrakoa ezartzen badu osoko bilkurak, bere kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, edo ordenamendu juridikoak; 7/1985 Legeak, berriz, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak publikoak ez direla ezartzen du 70. artikuluan.

Uler badaiteke ere 7/1985 Legeak ezartzen duen ez publikotasun hori 2/2016 Legearen 30, artikuluan aipatzen duen ordenamendu juridikoak ezarritakoa dela, segurtasun juridikoa bermatze aldera, komenigarria litzateke Debako Osoko Bilkurak dagokion erabakia hartzea gai horren inguruan.

Horiek horrela, aho batez, erabakitzen da osoko bilkurari proposatzea Tokiko Gobernu Batzordearen bileren maiztasuna aldatzea, eta bilerak publikoak ez izatea onar dezan.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 17:30ean amaitzen da Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Aliko
Alkatea

